

LANDAGRAFIA

Flora de los Barrios Altos de Bilbao



EUS



ES

Organizan:



Patrocinan:




1

Mariaren Bihotza Plaza
 Lirio zuhaitza magnoliazeoen familiako zuhaixka txiki bat da. Magnolia japoniarra otsailaren amaieran loratzen da eta egunak luzeagoak direla adierazten du. Mariaren Bihotza Plazan horietako lau zuhaitz daude.
 Hiriarren gune handienean udaberria oraindik urrun dagoenean, San Fran loretan dago.



María Arriera


LANDAGRAFIA



8

Bruno Mauricio Zabala Kalea


Eukaliptoia munduko zuhaitzaik landatuena da. Behar bada, ospe txar handiena duena ere da.
 Urteetan zehar, hainbat landaketa masibo egin dira, eta lurra erre era degradatzea eta behar duen ur baino gehiago hartzea leporatu diote. Zabala eta Angela Figuera kaleak elkartzen diren lekuan eukalipto bat dago, non txori asko bizi diren, eta behar bada bere espeziekoek eragin dako gaitzez damututa, *Zaindu lorategi hau* dioen kartel bat erakusten du.



7

Mena Kalea

Mena Kaleak bide ondoan ixkaroten du. Udazkenean, astigarrek horri gorriekin guztia betetzen dute. Jendea dator, doa edo geratzen da.
 Diotenez, astigar gorriek gotorlekua sinbolizatzen dute, oso egoera kaxarrean bizi daitezkeelako eta hiri-baldintza gogorrei aurre egin diezaieketelako. Kanpotar izeneko landare batzuk trenaren lubakian hazten dira. Neguaren amaieran, erauzi egiten dituzte baina beti berriro ateratzen dira.
 Haziak, sustraiak eta kimuak ebakitzen dituzten tresnak baino gogorragoak dira.



6

Erriberako Zubia

Martxoko, apirilko edo maiatzeko egun batzuetan, Erriberako Zubitik itsasadarraren ondoan hodei zurriak ikusten dira.
 Japoniako gerezioondoek beren loraldiarekin, edertasunaren behaketarekin eta naturaren ospakizunarekin eskatzen duten une berezia da. Komeni da udaberriko arratsalde guzietan lekutik pasatzea, loreek astebete baino ez baitute irauten.

2

Bilbo Zaharra Kalea

Bilbo Zaharra Kalearen amaieran, hesi baten atzean laranjondo bat dago. Laranjak sartzea debekatuta dagoen edenen baten fruituak dirudite.
 Muga egiten duen hesia zaharra da, baina bere giltzarrapoak berritzen doaz. Laranjondoaren ondoan horman dagoen katu beltz bat marrztuta dago.
 Atea ixita dago, baina beti dago zuloren bat paradisuetan sartzeko.



3

Gorte Kalea

Gorte Kalea likidambar baso batean hasten da. Amerikako jatorrizko zuhaitz honetatik, arantzaz eta kolorezko hostoz betetako fruituaz, zuhaitz guztiak lo zeudenean, bera esnatzen zela eta gertatzen zen guztiari adi egoten zela esaten zen. Bere izena anbar koloreko substantzia erretxinatsu eta aromatikotik dator, bere azalean ebaki bat egin ondoren jasotzen dena.
 Tradizionalki, anbar likido horrekin, erabiltzen zekitenek edozein zauri senda zezaketela uste zen.



4

Martzana Kaia

Martzana Kaian, meategietako material kargatzeko tokiaren hondakinen gainean lorategi bertikal bat hazten da, San Luis meategia itsasadarrarekin lotzen zuen tuneletik iragazten den urak ureztatzen du.
 Lorategia mareekin agertzen eta desagertzen da. Bertan, habitat hauskor eta aldakor bera partekatzen duten espezie bereziki erresistente asko bizi dira. Lurrari nola eutsi bilatzen duten bitartean, ilargiaren argitan, antzinako aztarnategietako budina edaten dute eta kaiko hormak laztantzen dituzte.



5

Iturburu Kalea

Albizia Julibrissin luma bezalako orriak dituen *mimosideae* familiako zuhaitz txiki bat da. Urrutitik hegana etorri den eta zuhaitzean bihurtutako txori bat dirudi. Udan, espezie honetako lore arrosoek sasiama eta fruta tropikalaren usain leuna eskaintzen dute.
 Kanpotik etorri eta sustraiak bota dituzten beste askok bezala, auzoa askoz ere leku gozagarriagoa da.

